

## **KONTROL MOZIOA**

### **HIRI HONDAKINEN KUDEAKETARI BURUZKOA,**

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2019ko azaroaren 11n Gune Publikoetako Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Crisitina Enea Fundazioak urriaren 25ean publiko egin zuen iraunkortasunari buruzko 2018ko txostenean Donostiako hondakinei buruzko datuak jaso genituen.

Txostenaren arabera, 2016. eta 2018. urteen bitartean hiri hondakinen tasak gora egin du, % 1 urtero. Beheranzko joera izan behar zuen datuak, beraz, igoera arduragarri gisa identifikatzen du. Bestalde, gaika bildutako hondakinen portzentajeak behera egin du 2018. urtean, guztizkoaren % 37ra iritsiz. Aldiz, zabortegira doan hondakin-kopuruak % 3 egin du gora 2017. urtearekin alderatuta. Udal Gobernuak hainbat ekintza egin dituela esan du: kontenerizazioa, informazioa eta sentsibilizazio kanpainak, tamaina handiko hondakinen bilketa... baina badirudi hori ez dela nahikoa izan.

Gogorarazi behar dugu, 2017ko martxoan Udaltzarak aho batez onartu zuela errefus-dukiontzi txip-dunaren azterketarako ikerketa tekniko bat egitea eta hura ezartzea, eta oraindik ezarri gabe dagoela. Añorga Txikin ezarri behar dela entzun dugu behin baino gehiagotan, baina ez dugu horri buruzko informazio zehatzik jaso. Eta gaiari serio heltzeko garaia dela uste dugu.

Jakin berri diren datu hauek oso arduragarri iruditzen zaizkigu, zailtasunak identifikatu baitira hondakinak murrizteko eta behar bezala horiek baliatzeko. Kudeaketa txar hau Udal Gobernu honek azken urteetan birziklapenari eta oro har hondakinen kudeaketa egokiari ematen dion garrantzi eskasaren adibide dira eta agintaldi honetan neurriak hartzeko unea iritsi dela iruditzen zaigu.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1. Donostiako Udaltzarak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari errefus-dukiontzi txip-dunaren auzoz auzokako ezarpenarekin has dadila 2020. urtean.

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

2. Donostiako Udaltzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari errefus-dukiontzi txip-dunaren ezarpenari buruzko kronograma bat egin dezala eta udal taldeei aurkez diezaiela.

Donostian, 2019ko azaroaren 14a

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego  
EH BILDU udal taldeko zinegotzia